

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

3278

EBAZPENA, 2021eko maiatzaren 25ekoa, Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendariarena. Ebazpen honen bidez, batera argitaratzen dira 2021eko lehiaketa arrunterako deialdiak, Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioako funtzionarioentzat gordeta dauden lanpostuak betetzeko, Euskal Autonomia Erkidegoan.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 21eko 7/1985 Legearen (TAOL) bigarren xedapen gehigarriak ezartzen du, Toki Administrazioaren Arrazionalizazioari eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legeak emandako idazkeran, erakunde eskudunek izango dituztela TAOLaren 92.bis artikulua eta horrekin bat egiten dutenek Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioako funtzionarioen arloan aurreikusten dituzten eskumen guztiak, autonomia-erkidegoko arautegiak ezarritakoaren arabera, lurraldean hutsik dauden lanpostuak betetzeko lehiaketetarako deialdiak egiteko eskumena barne, bai eta lehiaketa horietan funtzionarioak izendatzeko eskumena ere.

Hori dela eta, bigarren xedapen gehigarri hori Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatzeko orduan, neurri handi batean, EAEko erakundeek unean-unean ezartzen dutenaren arabera moldatuko da.

2018ko martxoaren 19an, indarrean jarri zen Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioako funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretua. Nahiz eta errege-dekretu horrek arautu Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioako funtzionarioen lanpostuak betetzeko lehiaketen araubide juridikoa, haren bosgarren xedapen iragankorrak ezartzen du ezen, lehiaketa garatzeko agindua indarrean jarri arte, bi lege-xedapen hauek aplikagarri izaten jarraituko dutela: batetik, Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioako funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeari buruzko uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretua eta, bestetik, Administrazio Publikoetarako Ministerioaren 1994ko abuztuaren 10eko Agindua, Estatu mailako gaikuntza duten toki-administrazioako funtzionarioentzat gordeta dauden lanpostuen horniketarako lehiaketei buruzko arauak ematen dituena.

Hori dela eta, aipatutako bosgarren xedapen iragankorrak ezartzen duenari jarraikiz, martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretua indarrean jarri aurreko araudia aplikatu behar zaio Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioako funtzionarioei gordetako lanpostuak betetzeko 2021eko lehiaketa arruntari.

Euskal Autonomia Erkidegokoari dagokionez, Estatuko gaikuntza duten toki-administrazioako funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeari buruzko uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuaren bosgarren xedapen gehigarrian aurreikusita dago errege-dekretu horren aplikazioa Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera gauzatuko dela. Xedapen horren zazpigarren paragrafoan ezarrita dagoenez, lurralde historikoetako foru-erakundeei dagokie Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioako funtzionarioentzat gordeta dauden lanpostuak betetzeko lehiaketetarako deialdia egiteko ahalmena, beren lurraldeetarako baino ez direnean. Deialdi horiek dagokien lurralde

historikoko aldizkari ofizialean argitaratzeaz gain, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ere argitaratu ahal izango dira.

Hori guztiori kontuan hartuta, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoetako foru-erakundeek egin eta argitaratu dute 2021. urteko lehiaketa arrunterako deialdia, lurralde historiko bakoitzean toki-erakundeetan Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioentzat gordeta dauden lanpostu hutsak betetzeko. Arabako Foru Aldundiak, bere aldetik, ez dio Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari jakinarazi aurtengo lehiaketa arrunterako deialdia egiteko asmoa, eta, kontuan hartuta toki-korporazioek otsailaren 10era arte zutela hutsik zeuden lanpostuetarako deialdia egiteko aukera, ulertzen da foru-erakundeak ez duela lehiaketa arruntaren deialdia egingo aurtun lurralde historiko horretako toki-korporazioetan hutsik dauden lanpostuak betetzeko.

Gauzak horrela, koordinatze aldera, batera argitaratu behar dira lurralde historikoek egingako 2021. urteko lehiaketa arruntari buruzko deialdiak; hori dela eta, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 11ko 71/2017 Dekretuaren 10. artikulua ematen dizkidan eskumenez baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitaratzea foru-aldundietako organo eskudunek egindako deialdiak, 2020. urteko lehiaketa arrunterako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoetako toki-erakundeetan Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioentzat gordeta dauden lanpostu hutsak betetzeko. Honako deialdi hauetan daude lehiaketak eraenduko dituzten oinarri komunak eta toki-erakundeek onartu dituzten berariazko oinarriak:

a) Bizkaiko Lurralde Historikoa: Herri Administrazioetarako eta Erakunde Harremanetarako foru-diputatuaren maiatzaren 21eko 4573/2021 Foru Agindua, zeinaren bidez 2021. urteko lehiaketa arrunterako deialdia egiten baita Bizkaiko Lurralde Historikoko toki erakundeetan Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioentzat gordeta dauden lanpostu hutsak betetzeko (2021eko maiatzaren 24ko BAO, 96. zk.).

b) Gipuzkoako Lurralde Historikoa: Gobernantza Departamentuko foru-diputatuaren maiatzaren 6ko 886/2021 Foru Agindua, Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostu hutsak betetzeko 2021eko lehiaketa arrunta deitzekoa (2021eko maiatzaren 12ko GAO, 87. zk.).

Bigarrena.– Lehiaketetan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea hamabost egun baliodunekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hirugarrena.– Eskatzen diren betekizunak eta merezimenduak ebazpen honen egunean bete beharko dira.

Laugarrena.– Deialdi hauetan baloratu beharreko merezimendu orokorrak izango dira ebazpen honen egunean egiaztatuta eta inskribatuta daudenak Estaturako gaikuntza duten funtzionarioen erregistroan, banakako zerrendaren arabera. Zerrenda hori interesdunen eskura dago Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz). Lehiakideek ezin izango dute beste egiaztapen gehigarriak aurkeztu, ezta epaimahaiak bestelako balioespenik egin ere.

Merezimendu orokor horiek <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/10619> helbidean ere kontsultatu ahal izango dira.

Bosgarrena.– Foru-aldundiek egindako deialdietan daude jasota Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostu hutsak, lehiaketa arrunterako deialdiaren bidez betetzekoak. Lanpostu horiek dira eranskinean agertzen direnak.

Seigarrena.– Foru-aldundiek egindako deialdietan daude toki-erakundeek onartu dituzten berriazko oinarriak. Oinarri horietan daude adierazita lanpostuen ezaugarriak eta merezimendu bereziak.

Zazpigarrena.– Lehiaketetan parte hartzeko eskabidea eta destinoak esleitzeko lehen-tasun-hurrenkeraren eredu argitaratuta daude foru-aldundiek egindako deialdien eranskinetan.

Zortzigarrena.– Hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko probak egitea eskatzen duten lehiatzaileek, eskabideak aurkezteko epean adierazi beharko diote Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari zer hizkuntza-eskakizun egiaztatu nahi duten.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honetan eta foru-aldundien deialdietan aurreikusi ez diren gaietan, oinarritzat hartuko dira Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioei buruzko araudia eta aplikatu beharreko gainerako lege- edo arau-xedapenak.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko maiatzaren 25a.

Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendaria,
MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA.

2021eko ekainaren 9a, asteazkena

ERANSKINA

BIZKAIA

Lanpostua / Toki-entitatea	Hizkuntza-eskakizuna	Derrigorrezkoa/Merezimendua
2. mailako idazkaritzak.		
– Arrigorriagako Udala.	4.	Merezimendua
– Gornizko Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Iurretako Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Lekeitioko Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Valle de Trápaga-Trapagarango Udala	4.	Derrigorrezkoa
3. mailako idazkaritzak eta kontu-hartzaileak.		
– Ajangizko Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Lezamako Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Loiuko Udala.	3.	Derrigorrezkoa
1. mailako kontu-hartzaileak		
– Durangoko Udala.	4.	Derrigorrezkoa
2. mailako kontu-hartzaileak		
– Balmasedako Udala.	4.	Merezimendua
– Gornizko Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Güeñesko Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Iurretako Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Sondikako Udala.	4.	Derrigorrezkoa
Diruzaintzak.		
– Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbenako Udala.	4.	Merezimendua
– Amorebieta-Etxanoko Udala.	3.	Derrigorrezkoa
– Arrigorriagako Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Durangoko Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Gornizko Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Muskizko Udala.	3.	Merezimendua
– Portugaleteko Udala.	3.	Derrigorrezkoa
– Sopelako Udala.	4.	Derrigorrezkoa

2021eko ekainaren 9a, asteazkena

GIPUZKOA

Lanpostua / Toki-entitatea	Hizkuntza-eskakizuna	Derrigorrezkoa/Merezimendua
1. mailako idazkaritzak		
– Arrasateko Udala	4.	Derrigorrezkoa
– Azpeitiko Udala.	4.	Derrigorrezkoa
2. mailako idazkaritzak		
– Beasaingo Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Bergarako Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Debako Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Ibarako Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Legazpiko Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Ordiziako Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Urnietako Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Villabonako Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Zumaiako Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Zumarragako Udala.	4.	Derrigorrezkoa
3. mailako idazkaritzak		
– Albiztur-Beizama elkarte.	4.	Derrigorrezkoa
– Alkiza-Larraul elkarte.	4.	Derrigorrezkoa
– Berastegi-Elduain elkarte.	4.	Derrigorrezkoa
– Bidania-Goiatz eta Berrobi elkarte.	4.	Derrigorrezkoa
– Errezil-Hernialde elkarte.	4.	Derrigorrezkoa
– Leaburu-Gaztelu elkarte.	4.	Derrigorrezkoa
– Zaldibia-Gaintza elkarte.	4.	Derrigorrezkoa
– Altzoko Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Amezetako Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Ataungo Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Belauntzako Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Gabiriako Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Idiazabalgo Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Ikaztegietako Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Legorretako Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Mendaroko Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Mutrikuko Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Ormaiztegiko Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Zegamako Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Zizurkilgo Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Sasieta Mankomunitatea.	4.	Derrigorrezkoa
– Urola Erdiko Mankomunitatea.	4.	Derrigorrezkoa
1. mailako kontu-hartzaitzak		
– Arrasateko Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Azpeitiko Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Errenteriako Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Irungo Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Zarauzko Udala	4.	Derrigorrezkoa

2021eko ekainaren 9a, asteazkena

Lanpostua / Toki-entitatea	Hizkuntza-eskakizuna	Derrigorrezkoa/Merezimendua
2. mailako kontu-hartzaileak		
– Andoaingo Udala.	3.	Derrigorrezkoa
– Azkoitiko Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Beasaingo Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Bergarako Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Debako Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Ibarako Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Legazpiko Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Lezoko Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Oñatiko Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Ordiziako Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Pasaiako Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Tolosako Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Urnietako Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Villabonako Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Zumaiako Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Zumarragako Udala.	4.	Derrigorrezkoa
Diruzaintzak.		
– Andoaingo Udala.	3.	Derrigorrezkoa
– Arrasateko Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Azpeitiko Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Beasaingo Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Errenteriako Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Irungo Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Ibarako Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Lezoko Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Tolosako Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Zarauzko Udala.	4.	Derrigorrezkoa
– Zumaiako Udala.	4.	Derrigorrezkoa